



2021eko ekainaren 30eko jarraibidearen bitartez Lanaldia Murrizteko baimen, aldi baterako etete eta eszedentzien etete datak arautu dira. Hauek urtarrilaren 31n edo abuztuaren 31n soilik eten ahalko dira, baldin eta horiek ematea eragin zuen arrazoia amaitzen ez bada edo salbuespenezko bestelako arrazoi frogagarri bat ez badago.

STEILASetik salatu nahi dugu Hezkuntza Saila bere aldebakarreko dinamikarekin jarraitzen duela erabaki honen berri ez baitugu izan ez guk ezta ikastetxeek ere. Ulertzen dugu neurriak egun ematen den abusu praktika bat etetea duela helburu eta ikastetxeen egonkortasuna ahalbidetzea. Edonola, hezkuntza komunitatea osatzen dugunokin benetako elkarlana existituko balitz, seguruenik neurri hau kontziliaziorako ezinbestekoa den eskubidea urratu gabe bideratu genezakeen.

Azkenik, onartezina da ustez ikastetxearen hobebeharrez hartzen diren erabakiak uztailaren 1ean iristea eskolara, dagoeneko langileen gehiengoa bertan ez dagoenean eta zuzendaritzei ikasturtearen antolakuntzarako zailatasun gehiago jarritz.

2021eko Uztailaren 2an



www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus